ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko maiatzaren 15a, asteazkena • 56 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AGURAINGO UDALA

**Landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zergaren 2019ko erroldak**

Ondasun higiezinen gaineko zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zergaren 2019ko erroldak jendaurrean jartzen dira udal idazkaritzan, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Aldi berean iragartzen da ondasun higiezinen gaineko zerga epe hauetan kobratuko dela:

1. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: udalak ondasun higiezinen gaineko zerga bi zatitan bilduko du, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da. Lehenengo zatia 2019ko ekainaren 19a eta azaroaren 1a bitartean bilduko da.

B) Premiamendu aldia: lehenengo zatiarena, 2019ko abuztuaren 19tik aurrera, eta bigarrenarena, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera; egun horietatik aurrera premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, kasuan kasuko errekarguarekin (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergena, 28. artikulua).

2. Ordaintzeko tokia eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak.

ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenek borondatezko epearen barruan udal bulegoetan baino ezin izango dute gauzatu.

3. Gomendioak

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu beharko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2019ko maiatzaren 6a

*Alkatea*
*IÑAKI BERAZA ZUFIAUR*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.15 05:30:39 Z